

1.1.2 GAIAREN LANKETA

> Nor, nolakoa, zer zara zu?



- Nor zara zu?

• Arbelean

Helburuak

- Umeek esaldien egitura ikustea.
- Umeak esaldiak egituratzen hastea.
- "Nolakoa zara zu?" eta "zer zara zu?" lantzea.

Prozedura

- Arbelean idatzi:

Ni + irakaslearen izena + naiz

Ni + polita + naiz

Ni + irakaslea + naiz

- Gauza bera egin ume bakoitzarekin forma guztiak erabiliz, zu, hura, gu, zuek, haiek.

- Umeei azaldu:

- Ikasitako formularekin gauza gehiago esan daitezke.
- Pertsonak deskribatzen ikasiko dute.
- Lanbideak ikasiko dituzte zer diren eta zer izan nahi duten esateko.
- Eta, horretarako, hiztegi berria ikastea nahikoa izango da.

NI + IRAKASLEAREN IZENA + NAIZ

NI + POLITA + NAIZ

NI + IRAKASLEA + NAIZ

ZU + UME BATEN IZENA + ZARA

ZU + TXIKIA + ZARA

ZU + IKASLEA + ZARA

ZUEK + GELAKO UMEEN IZENAK + ZARETE

ZUEK + TXIKIAK + ZARETE

ZUEK + IKASLEAK + ZARETE